

UZTARRIA KULTUR KOORDINAKUNDEA

1998-2008, Azpeitia



Kultur proiektua eta kultura politikoa

(Enekoitz Esnaola, Uztarriako kide ohia)

SARRERA

Arratsaldeon.

Azpeitiarra naiz, eta bai:

Azpeitiarrei buruzko topikoak, etiketak betitik gainean izan ditugu:

- San Inazio / eskualde itxia - kontserbadorea / korridak / Donostia txikia...

Euskalerrria Irratiko adibide bat: han kolaboratzen dut, eta behin irratiko esatariak aurreko egunean ETBn Azpeitiko zezenketei buruzko erreportaje bat ikusi eta horixe aipatu zidan irratian zuzenekoan, Azpeitia = korridak lotura eginez bezala. Gurean korridak garrantzia dutela aipatu nion, baina Azpeitian badela gauza gehiago. Adibidez, oraintxe dela pare bat urte Euskalerrria Irratiak berak 12.000 euroko laguntza jaso zuen Azpeitiko Udaletik.

Baina topiko horiek daude Azpeititik kanpo gutaz. Eta egoerari buelta ematea ez da erraza.

Azpeitian bertan ere bazen uste (ustel) irmorik Uztarria Kultur Koordinakundea sortu zen garaian —1998an— euskarari buruz: 'Euskaldunak gara, euskaraz bizi gara'.

Uztarriako kide batek esana da Eibarko mintegi batean, 2002an, *uztarria.com*-ez azalpenak ematera gonbidatu zutenean. Eseri zen, eta haren aurreneko esaldia:

- "Azpeitiyen euskaldun asko eta euskaltzale gutxi".

Horixe zen Uztarria sortzean esan genuena: azpeitiarrak ez ginela euskaltzaleak.

Huhezik iaz egindako *Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboa Gipuzkoan* lanak 16. orrialdean dio:

- "Uztarriako eragileek premisa esanguratsu batetik abiatu zuten prozesu hau guztia: Azpeitian euskaldun asko dago baina euskaltzale gutxi. Euskara erdigunean jarrita, estatus politiko jasoa eman nahian ari dira".

Uztarriaren jendaurreko aurkezpen jaialdia, 1998ko apirila. 400-500 lagun Azoka plazan, eta Bernardo Atxagaren liburu bateko esan batzuk gure hitzaldian:

- "Atxagak *Behi euskaldun baten memoriak* liburuan dio ez dagoela behi makala baino makalagorik".
- "Guk behi makalen antz handia dugu euskara eta kultur arloetan. Hau da: zaila izango da, bi arlo haietan, azpeitiarrok baino makalagorik aurkitzea".
- "Guk, azpeitiar makalok, ez ditugu idatziak geure memoriak. Baina idazten jarri, eta zer idatziko genuke euskarari-eta dagokionez? Euskaldunak garela? Bai. Ordea, idatziko al genuke euskaltzaleak garela?".

1998rako gizartean zerbitzuen alorrak indar handia zeukan, teknologia berriak garatzen eta zabaltzen ari ziren, etorkin berriak ugaritzen... Atzean ari ginen geratzen Azpeitian euskararen arloan-eta. Ordura arte hizkuntzari ahozkoan eutsi izanak ez zuen bermatzen etorkizun euskalduna. Mundu berri bat ate joka zen.

- "Baina hemendik aurrera ez dugu makalak izan behar. Hemendik aurrera ezin dugu gelditu trenea ziztu bizian aurretik pasatzen ari zaion behia bezala", genioen 1998ko jaialdian.

Horrela hasi ginen. Imajinatu Uztarriaren sorrera prozesua bizi ez zuen jende baten aurpegiak. XXI. mendeko trenera igoak ginen geure ustez —ttor-ttor, Urolako trenera bada ere—, baina asko genituen begira; nola behiak...

Kritikak ere jaso genituen. Betikoa; etiketak jarri nahia.

ATZERA JOZ

Huheziren *Euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak* lanean 26-27. orrialdeetan hau jartzen du:

- "Euskal kulturgintzako eragile sozialak eta gizarte erakundeak artikulatzeko pausoak ematea. Artikulazio hau bi mailatan gauzatu beharrekoa da. Batetik, euskal kulturgintzaren esparru bakoitzaren barruan, eta, bestetik, esparru desberdinen arteko eremu orokorrean".
- "Euskal kulturgintzaren esparru edo adierazpide bakoitzak beren esparrua ekosistema moduan lantzen hastea; transmisioa, sustapena eta jakintza".
- "Tokian tokiko gizarte eragileak eta tokian tokiko eragile publikoen indarrak norabide honetan jartzea".

Bat egiten dugu horretan.

Helburu horien bila joan ginen Uztarria Kultur Koordinakundea eratzean, eta beti hala aritu ginela uste dugu. Hamar urtean halaxe.

Koordinakundea 1998ko martxoaren 3an aurkeztu genuen, komunikabideen aurrean. Baina mugimendua, prozesua, ez zen orduan hasi.

Aurretik egosten izan genuen, mamitzen joan ginen.

Hastea bezain garrantzitsua da ondo hastea.

Euskara, kultura eta komunikazioa arloetan egoera minimoaren azpitik geunden Azpeitian, herri euskaldun horretan. Kontzientziarik ez zen, eroso Udala, jendeak pasibitatea, baliabide falta.

Hiru adibide besterik ez dira ondorengoak:

- 1995: EHEren eskaerak. Azpeitiko Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) Gipuzkoako 10.000 biztanletik gorako herrietan udal euskara teknikaria non zen aztertu zuen 1995ean. Guztietan zegoen, hirutan izan ezik: Errenterian, Azkoitian eta Azpeitian. Ondoren txosten mardula egin zuen EHEk, eta Udal Euskara Batzordea eta udal euskara teknikaria eskatu zituen herriko hauteskunderen atarian. Alderdi bateko buruetakoak bileran esana EHEk eskatutakoaz: “Ezta burutik pasatu ere!...”. Udal berriak ez zuen eskaera ontzat jo.
- 1985: kultur etxea. Xabier Lete Gipuzkoako Kultura diputatu zela eta Imanol Murua ahaldun nagusi, Foru Aldundiak herrietan kultur etxeak sortzeko egitasmoa abiatu zuen. Ia denetan sortu zuten; Azpeitian ez.
- 1994: euskara idatzia. Azpeitiko elkarte garrantzitsu batek bere 50. urteurrena zuela-eta liburua atera zuen. %95, gazteleraz. Liburuaren aurkezpenean orduko Udal Kultura batzordeburuak, hitz batzuk euskaraz egin ondoren: “Ikusten dut aretoan zaudeten gehienok ez dakizuela euskaraz eta, hortaz, gazteleraz egingo dut aurkezpena”. Ni *Egunkaria*-ko kazetari bezala joan nintzen ekitaldira, aretoan zegoen jendeari begiratu eta, han 40 bat lagun bazeuden, pare bat ziren euskara ez zekitenak —hedabideetakoak—.

Panorama hori zela, EHEn zebilen edo ibili zen jendea biltzen hasi ginen 1997an. Esan bezala, bi urte lehenago udal euskara teknikaria eta Udal Euskara Batzordea eskatu zituen EHEk. Denentzat izango ziren bi tresnak, baina eskaera haiek egiteko estrategia irismen laburrekoa izan zela ondorioztatu genuen 1997an: EHEk eskatu, eta EHEk soilik *jan* ezezkoa. Herri ikuspegia izanda jokatzeko hasi beharra zegoen.

Txarra zen egoera:

- Euskara. Udal euskara teknikaririk ez zegoen, Udal Euskara Batzorde / Patronatorik ez, herrian euskara elkarterik ez, euskararen berreskuratze edo normalizazio plan estrategikorik ez, kontzientziarik ez.
- Kultura. Kultur etxerik ez, kultur dinamika eskasa, plangintza falta, egutegi koordinatu eta orekaturik ez, gastuan desorekak.
- Komunikazioa. Herri aldizkaririk ez zegoen, Internet hutsik, herriko telebista —merituz ari zen norbanako batena— bere kontura zebilen...

Eta hori bezain larria: Azpeitiko euskara eta kultur taldeen artean ez zen harremanik.

1997ko maiatzean herriko euskara eta kultur talde denei inkesta banatu zien EHEk. Talde batek ez beste guztiek erantzun zuten. Asko ikasi genuen, aberasgarria izan zen. Lanarekin segitu beharra zegoen.

1997ko urriaren 18an egin genuen lehen batzarra, irekia. Egun hartantxe egin zuten Gernikan, ELAk antolatuta, *Estatutua hilda dago* manifestazio ezagun hura. Aurreko eguneko *Egunkaria*-k Joxe Elorrieta ELAko orduko idazkari nagusiaren elkarrizketa zekarren, eta Elorrietaren pasarte bat aipatu genuen geure batzarrean, hasteko:

- “Gure gogoetan autogobernuaren bidea ezin da gelditu instituzioen eskuetan. Batzuetan irudi hori ikusten da, gure prozesua menpean dagoela eta instituzioek daukatela logika propioa eta autonomia. Hori ez da guretzat dinamikoena. Guk esaten dugu gure indarra herrian dagoela, bai alderdi politikoetan, bai instituzioetan, baina baita beste mailetan ere. Hori dena desblokatu egin behar da, martxan ipini, mobilizatu, ilusionatu eta fase berria zabaldu. Fase berri horretarako pazientzia behar da, formula magikorik ez dago, miraririk ere ez, baina horretarako mugitu egin behar da. Bakoitzak egin beharko du bere autokritika edo bere gogoeta”.

Baina, hasi zen gure batzarra, eta elkarteko bateko kide batek:

- “Aldizkaria sortu behar da. Azkoitian sortua dute: *Maxixatzen*”.

Azkoitiarrei meritua aitortzeaz aparte, ezer baino lehen oinarriak jarri beharraz mintzatu ginen bileran.

Ondorengo asteetan beste batzar batzuk egin genituen. 25 bat lagun beti. Sustatzaileok dena grabatzen genuen, pikatu, gaika antolatu, pasatu, ekarpenak jaso... Lanketa handia. Serioa.

Elkarlanaz jardun genuen, parte-hartzeaz, kultur dinamikaz, Udalaren politikaz, elkarlanaz, plataforma zabala sortu beharraz, ekimena izatearen garrantziaz...

SORRERA

Arestian aipatu bezala, 1998ko martxoaren 3an aurkeztu genuen komunikabideen aurrean Uztarria Kultur Koordinakundea.

Genioena:

- “Kultur proiektu bat sortu da Azpeitian”.

Eta:

- “Bakoitzak bere terrenotatik irten du eztabaidetan eta gauzak ikuspegi zabala izanda aztertu ditugu”.
- “Azpeitian arlo askotan egoera minimo baten azpitik gaude. Hori azpeitiar guztion ardura da”.
- “Hiru kritika: taldeei, herritarrei eta Udalari.
 - o Kultur taldeen artean koordinaziorik ez dago. Artxipelagoaren itxura zegoen: talde bakoitza irla bat zen, irlatik irlara ez zegoen zubirik eta, gainera, ez zegoen txalupa txikirik ere irla batetik bestera joateko. Koordinazio ezak arazoak sortu izan ditu urteetan Azpeitian, eta hori bukatu beharra dagoela erabaki dugu guztion artean.
 - o Herritarrek taldeetan eta kultur ekintzetan parte hartzeko joera handirik ez dute.

- Udalak ez ditu aintzat hartzen euskara eta kultur taldeak. Eta ez du baliabiderik jarri”.
- “Uztarrria hasiera honetan kritiko azaldu den arren, ez doa inoren kontra. Euskara eta kulturaren aldeko proiektua da hau, eta Udala, herritarrak eta talde guztiak dira ezinbesteko, kultur egoera hobea eta indartsua eduki nahi baldin bada”.
- “Fase berri batean sartu beharra dago”.

Herritarrak, euskara-kultur taldeak eta Udala uztartu nahi genituen, eta koordinakundeari ‘Uztarrria’ izena jarri genion.

Geure artean esaten genuena-eta:

- Proiektu honek iraunkorra izan behar du, urte batzuetakoa. Belaunaldi batena.
- Berria da, berritzailea, ezohikoa Azpeitian, gogorra izango da hasieran, motela irudituko zaigu batzuetan... baina iparra izanda aritzea komeni da.
- Helburuak, norabidea, ardatzak, proiektua, estrategiak, antolaketa, baliabideak, mezua, koherentzia, garapen progresiboa, harremanak, herritarren atxikimendua, akordioak, lorpenak. Horiek ziren gure ikur eta ildoak. Denborarekin egokitzen eta berritzen ginen.
- Eragin egin nahi genuen.
- Zentralitatea lortu.

Helburuak, izaera edota ardatzak finkatzeaz gain, beste hainbat neurri hartu edo aplikatu genituen.

Antolaketa.

- Garrantzi handia eman genion antolaketari.
- Hiru ziren ardatzak: euskara, kultura eta komunikazioa.
- Bakoitzarekin talde eragilea sortu genuen. Esparru horietako jendea zegoen talde horietan. Talde bakoitzak barne posta zeukan.
- Talde Eragile Orokorra. Talde bakoitzetik ordezkari bana zegoen, eta kudeatzailea eta lehendakaria ere bai. Barne posta.
- Denera, 20 bat lagun geunden asteroko dinamikan. Tarteka talde eragileen batzarra egiten genuen. Barne posta orokorra ere bagenuen.
- Koordinakundeko batzarrak urtean 3-4 aldiz. Koordinakundeko barne posta.
- Elkarteko bazkideen batzarra. Urtean behin.

Bazkideak.

- Mugimenduak gorputz sozial handiagoa izateko, bazkide asko lortzeari ere garrantzi handia eman genion. 2008an bukatu genuen Uztarria koordinakundea, eta 1.071 bazkide zituen (30.000 euro ziren urtean, aurrekontuaren %35 inguru).
- Bazkideei urtean barne buletin batzuk pasatzen genizkien.

Informazioa, gardentasuna.

- Ikusten zenbat barne posta, batzar, buletin? Informazioa pasatzen genuen, gardentasuna eskaintzen genuen, ekarpenak jasotzen genituen...
- Proposamen bat, proiektu bat edo kritika bat kaleratzerako, gaia barne mailan sozializatua / zabaldua genuen. Eta asko ginenez, ekimena geneukan. Egoera kudeatzeko formula ona izan daiteke. Baina sarea izan behar duzu, egitasmoak...

Proiektua indartze eta zabaltze aldera ekimenak.

- Liburuak-eta. Hamabi liburu eta musika CD bat atera genituen. Liburu biografikoekin hasi ginen. Protagonistak: jende edadetua eta hildakoak. Hala, beste jende batengana iritsi nahi genuen: helduengana. Hutsune bat baikenuen.
- Ohorezko bazkideak. 11. Horrela ere helduengana iristeko.
- Baite Euskara Elkarte. Hori sortzeko sustatze lana egin genuen. Herriko hiru ikastetxeak sartu ziren proiektuan. 2001ean sortu zen Baite. 2003an Baitek eta Uztarriak bat egin zuten.
- Kulturaldia. Hilabete bateko ekimenak ziren, taldeek antolatuta. Kale presentzia, elkarlana. Sei Kulturaldi antolatu genituen.
- Besterik. Hitzaldiak (25), *Literatuzta* aldizkaria, Eregi komunikazio eta euskara enpresa, txosna festetan, Tourreko lehiaketa, kontzertuak, ikastetxeen bisitak...

Taktikak.

- Proiektua sendotze / indartze aldera batzuetan irizpide aldetik gustuko ez genituen gauzak egin beharra zegoen.
- Adibide edo kasurik nabarmenena:
 - o 2000n Udalarekin *Uztarria* herri aldizkarirako akordioa egin genuen. Udalak herri mugimendu batekin egindako lehen akordioa zen. Aldizkaria urte erdi bat lehenago sortu genuen.
 - o Akordio hartan Udalak baldintza bat jarri zuen: hilero bi orrialde berak hartuko eta beteko zituen. Kazetaritzako irizpideen kontrako neurria zen. Baina aldizkariaren hasiera genuenez, baliabideak behar, eta ontzat jo genuen, akordioa sinatze aldera. Euskal Herritarrok-ek (EH) udalbatzarrean hitzarmenaren aurka bozkatu zuen horregatik; ulertzekoa zen. Alde, EAJ eta EA, gehiengo osoz.
 - o Guk luzera jokatu genuen. Ituna bi urtekoa zen eta *bagenekien* bi urtera

500-600 bazkideren bueltan ibiliko ginela, ordurako herrian presentzia handiagoa izango genuela, ibilbide bat. Ondorioz, akordioaz berriro hitz egitean beste baldintza batzuetan egongo ginen, eta Udalari esango genion ez genituela nahi bi orrialdeak, eta uste genuen litekeena izango zela aldizkaritik horiek kentzea. Heldu zen 2002a, eta izan zen tentsio unerik, baina lortu genuen bi orrialdeok kentzea. Jakina, segitu genuen Udalaz informazioa ematen, baina betiere kazetaritza irizpideetan oinarrituta.

- Bi pasadizo. Esan dugu: Uztarria koordinakundearen sortze garaian oinarriak jartzea zen garrantzitsuena. Aldizkaria bera, elkarteak sortu eta urtebete eta zortzi hilabetera atera genuen: 1999ko azaroan.
 - o Nola ez, hasieratik egin nahi genuen Udalarekin akordioa, eta bilera eskatu genion. 1999ko abenduaren 22rako eman zigun alkateak, 09:00etarako... santomasen hurrengo goizerako! Kasualitatea? Uztarriako bi kidek joan behar genuen. Aurreko egunean goizeko seiak alderako jaikita ginen gu, Uztarriaren txorizo postua-eta jartzeko; eta, gazteak ginenez, gauean parranda egin genuen. Han azaldu ginen biok alkatearengana porru eginda. Hasi genuen bilera, baita hamar bat minuturako bukatu ere. Ez zegoen akordiorako borondate handirik beste aldean. 9:15 alderako udaletxe azpian geunden... "Goazean kafe bat hartzera, behintzat". Joan, eta ondoko taberna batean Espainiako loteria tokatu! Goiza zerbaiteko probestu genuen, sikiera: aldizkarirako taberna hartako argazkiak ateratzeko.
 - o Handik zazpi hilabetera sinatu genuen Udalarekin akordioa: 2000ko ekainean. Sinatze ekitaldia, udaletxean; egun garrantzitsua guretzat. Eguerdi parte eguzkitsua zen... eta gure lehendakaria nola eta bainujantzian azaldu zen hitzarmena sinatzera! Argazkia atera alkateari eta bie i zenpetzen, eta, jakina, Photoshopi esker aldizkarian gerritik gora azaldu ziren...

2008, KOORDINAKUNDEAREN BUKAERA

2008an bukatu genuen Uztarria Kultur Koordinakundea. Helburuak beteta, gure ustez. Ondorengo lorpenak izan genituen hamar urtean. Dena dela, garrantzitsuak izan arren, ez ditut bereziki azpimarratu nahi gaur hemen, Huhezin, herrietako elkarte bakoitzak dituelako bere lorpenak, eta guztiek dute meritua.

- Euskara. Bi normalizazio / berrekuratzeko plan daude Azpeitian (Udalaren-Jaurlaritzaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia eta Kontseiluaren Bai Euskarari; biek bat egin zuten), Udal Euskara Patronatua, udal euskara teknikaria... Eta garrantzitsuena: herrian zerbitzu berria sortzen denean (denda, taberna...), gehienetan euskaraz funtzionatzen du; kontzientzia bat badagoelako.
- Kultura. Soreasu kulturgunea egiten ari dira (ikusentzuneke ekitaldi handientzat izango da, batik bat), Sanagustin kulturgunea ireki berri da (formatu txikikoak), kultur agenda dago, Kulturaldia urtero taldeek, Kultur Mahaia.
- Komunikazioa. Herri aldizkaria dago, herri weba (www.uztarria.com), *Urola Kostako Hitza* eskualdeko egunkaria. Liburuak euskaraz argitaratzen dira.

Kultura politikoari ematen diogu guk garrantzirik handiena. Parte bakoitzak egindako lanari esker, gauzak beste era batera egiten dira orain Azpeitian. Dena ez du Udalak egiten. Herri mugimenduak badu ahotsa, baditu erabakiguneak, tresnak... Jose Luis Otamendik 2008an idatzia da Uztarria koordinakundearen bukaeran, monografikoan:

- “Negar jotze tristean luzaroan sorgortuta egotetik, herri biziago bat izatera etorri gara”.
- “Udala herriko talde eta eragileekin beste modu batera jokatzeko hezi du Uztarriak”.
- “Herriarroi, berriz, elkar hartu eta borroka eginez gero, bihotza ahaztu gabe, burua galdu gabe, ezinezkorik ez dagoela erakutsi digu Uztarriak. Kultur politikarentzat ez ezik, kultura politikoarentzat ere lezioa izan da”.
- “Azpeitiar euskaldunak konplexu eta lotsa handiak uxatu ditu, parte-hartzeari beldurra galdu dio, nonahi mamu eta etsai politikoak bilatzeari utzi dio...”.

Kultur Mahaia aitatu dudala, Huhezik bere lan horietan aipatzen du Azpeitiaz:

- “Hori guztia herri ekimenetik egin izan da. Azken urratsa kultur mahai bat eratzea izan da, non kultur ordezkariak eta udalekoak, berdinetik berdinerara, biltzen dituen”.

Lorea Agirre Huheziko kideak *Berrria*-n duela hilabete:

- “Kolore politikoak kolore, eta aldaketa politikoak aldaketa, herriarentzat eta herriaren eskutik kultur politika beregaina egin ahal izateko bidea zabaldu dute. Kultur politika ulertzeko eta praktikan jartzeko eredu berri bat da”.

“NO ESTAR EN ALGO, SINO DECIDIR EN ALGO”

Uztarria sortzeko garaian parte-hartzeari buruz-eta asko leitu genuen. Ezequiel Ander-Egg argentinar soziologoaren teoriak, esate batera. Hala dio hark:

- “*No estar en algo, sino decidir en algo*”.

Guk gure proiektua abiatu genuenean 1998an, ez genuen aholkulari izan nahi, ez nonbait egon, baizik eta geuk egin, geuk erabaki. Elkarlanean bazen, hobeto.

Zenbat hitz huts den erakunde askotan, zabaltasunaren eta parte-hartze sozialaren izenean.

Adibide bat: Eusko Jaurlaritzaren Kulturaren Euskal Kontseilua.

- Urte eta erditik gorako etenaldiaren ostean, duela bi hilabete bildu zen berriro Kulturaren Euskal Kontseilua, Kulturen Aldeko Herriartasun Kontratua eztabaidatu eta osatzen laguntzeko zeregina duen organoa...
- ...hau da, Eusko Jaurlaritzaren organoa.

- Euskarazko eta gaztelaniazko kulturak parekatzeko joera nagusitzen ari da Kultura Sailean. Beraz, Kulturen Aldeko Herritartasun Kontratuan eta Kulturaren Kontseiluan ere bai. Baina ez naiz hor sartzen, izaeran baizik. Osaketan, kasu.
- Kontseiluak 55 kide dauzka. Horietatik 32, Jaurlaritzako Kultura sailburuak izendatutakoak dira.
 - o Aurreko legealditik 31, berriak dira. Patxi Salaberri euskaltzaina da lehendik dagoen bakarra.
 - o Beste 23 lagunak:
 - Jaurlaritzako hamar ordezkari.
 - EITBko, EAEko hiru foru aldundietako, EAEko hiru hiriburuetako eta Eudeleko ordezkari bana.
 - Eta Eusko Legebiltzarrak izendatutako bost bokal.
- Kultur arloko jende bat egon badago, baina ez du erabakitzen. Jaurlaritzaren menpe daude.

Beste kasu bat: Tabakalera Donostiako kultur zentro garaikidea.

- Administrazio Kontseilua hiru erakundek osatzen dute: Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak.
- Orain bazkide berri bat nahi dute: Gipuzkoako Kutxarekin hizketan ari dira.
- Lau *kultur aditu* Tabakalera gobernatzen, lau *kultur sortzaile eta eragile...*: Jaurlaritza, Aldundia, Udala, Kutxa.
- Badakizue zein den Tabakalerako azken gai izarretakoa: AHTaren Donostia erdialdeko geltokia kultur zentroan jarri edo ez...

Horrelako egiturekin eta organoekin jai dugu. Erakundeen menpe jai dugu.

BI ERABAKIGUNE IZATETIK, BAKARRERA

Huheziren *Euskal kultur gintzaren estrategiak garatzeko oinarriak* lanera noa berriro, artikulaziora eta elkarlanera:

- Euskal kultur gintza. Bi mailako artikulazioa: esparru bakoitzean, esparru desberdinen artean.
- Euskal kultur gintza eta eragile publikoak norabide berean.

Horraino helduz gero, ondo.

Kontuan hartu behar da, ordea, hor oraindik bi erabakigune daudela: euskal kultur gintza eta instituzioak. Bakoitza bere organoekin.

Elkarlana proposatzen da. Ondo.

Baina askotan arlo politiko-instituzionalean beste gauza asko sartzen dira (interes politikoak, hauteskundeak, beste lehentasunak, testuingurua...), eta zaila da. Maiz haren menpe zaude.

Joxe Elorrietak 1997an zioena gogoratuz, kulturgintzara ekartzea komeni da:

- “Gure garapena ezin da gelditu instituzioen eskuetan. Hori ez da dinamikoena. Gure indarra herrian dago. Hori dena desblokatu egin behar da, martxan ipini, mobilizatu, ilusionatu eta fase berria zabaldu. Pazientzia behar da, formula magikorik ez dago, miraririk ere ez, baina horretarako mugitu egin behar da. Bakoitzak egin beharko du bere autokritika edo bere gogoeta”.

[ondorengoa, nire iritzia da]

Ondorioz, zergatik ez erabakigune bakarra izatera jo? Hau da: gizarte mugimenduek, norbanakoek eta erakunde publikoek osatutakora, herrian kokatua, organo instituzionaletatik kanpo. Hor egiteko eta hortik garatzeko kultur proiektua.

Kultura politiko berria litzateke, azken batean.

Azpeitian Kultur Mahaia bide bat egiten ari da, beregaina. Kultur taldeek, udal taldeek eta norbanakoek osatzen dute Mahaia. Uztarrria koordinakundea 2008an bukatu genuenean —agian, bere garairik onenean—, ikusten genuen Azpeitian kultura arloan espazio zabalagoa eratzeko aukera zegoela. Guk ez genuen nahi protagonismorik edo ezer kapitalizatzerik.

Azpeitiko 25 kultur taldeak daude Mahaian, denak, eta batzarrean haiek baino ez dute botoa (eta orain dagoeneko 243 bazkide ere baditu Mahaia). Neu orain hor nabil. Ari gara gauzak lortzen:

- Azpiegituren atalean, abenduan herriko plazan Sanagustin kulturgunea ireki genuen. 450 metro koadrokoa da —eliza zen lehen—, eta udarako ostalaritza zerbitzua ere izango du. Kultur Mahaia deialdira aurkeztuko da.
- Komunikazioan: kultur weba dugu, hileroko kultur agenda ere bai. Karteldegia elektronikoen proiektua daukagu.
- Kultur egutegi orekatua egiten ari gara...

Antolaketa aldetik, lehen Uztarriaz esandakoaren antzekoa: Talde Eragilea, barne postak, buletinak...

Kultur Mahaiaz ere kultura politikoa nabarmendu nahiko nuke, gauzak egiteko modua.

Esan dut Huhezik dioela:

- “Azken urratsa kultur mahai bat eratzea izan da, non kultur ordezkariak eta udalekoak, berdinetik berdiner, biltzen dituen”.

Galdera bat: ez iruditzen 1979tik den arkitektura instituzionala zaharkitua dagoela?

Frankismoaren ondorengo lehen hauteskundeetan ostean, erakunde publikoetan sailak eta batzordeak-eta sortu zituzten. Ulertzekoa zen. Hor daude oraindik. Gaur egun zenbait arlotan —euskarari, kulturari...—, funtzionamenduak bestelakoa beharko luke izan, partaidetza plural bat izanda betiere. Berme handiagoa eskaintzen du erabakigunea kalean / herrian kokatzeko; sozialagoa da, parte-hartzaileagoa da.

Gune horrek luke logika propioa eta autonomia.

LEHEN MAILAN ERE EZ GAUDE, ORDEA

Baina: oraindik euskal kulturgintzan lehen mailan ere ez gaude. Hau da, esparru bakoitza artikulatu gabe dago.

- Salbuespen bat dago: Bertsozale Elkartea.
- Euskara arloa ez dago erabat artikulatua (Kontseilua), hedabideak orain ari dira pixka bat lantzen, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea sortu berria da...

Ez gaude eskatzeko moduan. Ez gaude eragiteko moduan.

Beraz, indarrak lehen mailara bideratu behar dira: euskal kulturgintzaren esparru bakoitzeko artikulazioa lortzera. Gero letorke esparru desberdinen arteko lotura. Horrela eragin daiteke esparru barruan eta, gero, botere publikoan. Eta, agian, inoiz erabakigune bakarria herrian kokatzea lortuko da.

Urte asko beharko direla lehen maila-eta egituratzeko? Bai, eta?

Jon Sarasuak esana da 2010eko urriko elkarrizketa batean:

- “Hamarkada eta belaunaldi terminoetan pentsatzen ikasi behar dugu”.

Lorpenak lorpen, akatsak akats, guk Uztarriarekin bide horri heldu genion 1998an: kultur proiektuari ez ezik, kultura politiko berria izateari.

Pozten gara, beraz, Azpeititik kanpo bide hori aintzat hartu izana. Esaterako, Huheziren aldetik. Azpeitiari buruzko betiko topikoak aldatzearen.

Ez dakigu egoera idealera inoiz helduko garen. Eta heltzen bagara, noiz; hori bai, igual oraindik korridak izango ditugu Azpeitian...

Eskerrik asko denoi Uztarriaren izenean, Enekoitz Esnaola

<http://www.uztarria.com/azpeitia/taldeak/uztarria/index.html>

<http://www.uztarria.com/albistiek/1299171042>